

Euskal Literatura Ameriketean (1876 - 1914)

GORKA AULESTIA

RESUMEN
LABURPENA
ABSTRACT

Presentamos a tres representantes de la emigración vasca a Latinoamérica (Argentina y Uruguay) en el s. XIX. Como aparece en el título del artículo, no se trata de vascos comunes sino de creadores de versos cantados.

XIX. gizaldiko euskaldunen Hegoameriketako emigrazioaren hiru ordezkari aurkezten ditugu. Artikuluaren izenburuan agertzen den bezala, ez ziren euskaldun arruntak, bertsolariak baizik.

We present three representative figures of the Basque emigration to South America (Argentina and Uruguay) in the XIXth century. As the title of the article says, these are not ordinary Basques, but creators of sung verses.

PALABRAS CLAVE
GAKO-HITZAK
KEY WORDS

Argentina, vascuence, Sudamérica, nostalgia, versos vascos.

Argentina, euskara, Hego Amerika, herrimina, Montevideo, bertsoak.

Argentina, Basque language, South America, nostalgia, Montevideo, Basque verses.

Nire lanaren izenburua da: “Euskal Literatura Ameriketara, 1877tik 1914ra arte”. Hiru hitz hauen eremua oso zabala da, agian zabalagoa ere iruditzen zait, euskaldunen orduko literatura xumea egokiro ager dezan. Literatura hitzak “litera” edo letrara garamatza eta zoritxarrez literatur idazlan gutxi agertzen dira aldi horretan Euskal Herritik kanpo. Bainan “literatura” hitza zentzu zabalean hartuz gero (eta ahozko literatura ere kontuan hartu), euskal emigrazioaren hiru bertsolari ospetsuren berri eman dezakegu: Pedro Mari Otaño (1857-1910), Jose M^a Mendiague (1845-1937) eta Joxe M^a Iparragirre (1820-1881): bi gipuzkoar, eta jaiotzez baxenabartar baina bihotzez hazpandarra zena. Euren arteko ezberdintasunak nabarmenak diren arren - adina, euskalkia, bertsoak osatzeko teknika, nortasuna, etab. Batera erakusten dituzten lokarriak askoz ere nabariagoak dira: emigrazioa, Hego Amerika (Uruguay eta Argentina), herrimina eta urrutimina, euskara, Foruen galera, askatasun egarria, etab. Beraz, hirurak hari fin eta luze baten bitartez loturik, agertzen saiatuko naiz. Iritziak iritzi hona hemen bi euskaldun ospetsuk esaten digutena:

- a) Luis Michelena: “Eta Gipuzkoako bertsolarien artean baten izena ezaguna baldin bada, Pello Mari Otaño’reña da, noski”. *Egan* (1-2), 1960: 118.
- b) “Basarri”: “Aundienetan aundia”, hitzen bitartez definitzen du bere maisutzat zuen Zizurkilgo bertsolaria.

1.1. Familia

Bertsogintza guztiz hurbiletik ezagutzen zuen familia batean jaio zen Pedro Mari Otaño 1857ko urtarrilaren 26an Zizurkilgo “Errekalde” baserrian. Aitona, ezizenez “Errekalde Zaharra” eta amona, Mikaela Lasa, bertsozale eta bertsolari finak izan ziren. Halaber, osaba Joxe Bernardo Otaño, orduko bertsolari ospetsuenekin (Udarregi, Pello Errota, etab.) norgehiagoka agertzen zaigu Gipuzkoako plazetan, adibidez, Azpeitian. Beraz, Pedro Mari Otaño haurrak bere baserritik urrutira joan beharrik ez zuen izan bertsoak kantatzen ikasteko. Bat-bateko bertso-saiioetan apenas parte hartzen zuen, ezta iriak ez ziolako batere laguntzen plazetako bertsogintzan. Baditu halere bat-bateko bertso onak, baina bertsozale gehienak eta hobereak bertso jarriak edo idatziak dira, eta hauen artean erbestean eginikoak gailentzen dira, adibidez:

“Ameriketatik osaba Jose Bernardori biralduak orain dala bost urte” (1889)

“Aita-semeak” (1900)

“Zazpiak bat” (1900)

“Amerikako Panpetan” (1900)

“Maisubari” (1903)

Gaztaroan Zizurkildik Donostiako Amara auzora joan zen bizitzera bere familiarekin. 1875ean, hemezortzi urte zituela eta Bigarren Karlistada (1872-1876) pil-pilean zegoela, lehen aldiz Ameriketara joan zen. Argentinara joatea otu zitzaion eta bertaratu arte ez zuen atsedunik izan. Otañotarrak liberalak ziren, eta soldaduskara joan behar zuen mutil gaztearen bihotzean, Ameriketara joateko grina sortu zen.

“...etsaiak min artzen nonbait
gure poz ta jolasetan,
argatik gerok batere kulpik
ez gendubela ezertan,
txit urrutira joan biarra
izandu nuben batetan;
oso gazterik arkitu nintzan
Amerikako Panpetan... (1)

Triste, goibel, penaz beterik alde egin zuen bere aberria zorigaizto-ko guda odoltsu hartan ikusita. Zizurkilgo bertsolaria Argentinara joan beharraren eta etsipenaren zergatia ahapaldi honetan aurki dezakegu:

Gau ta egun auziaz dago
Gure euskal Erri ederra.
Alde batera nahiago nuke
ez banintz hemengotarra.
Mundu guztia ikaratzen du
euskaldunaren negarrak;
saiatutziak balio ez badu
zertako degu indarra?
Hau da txoria gari tartean
goseak egon beharra. (2)

Lehendabiziko bidaia honetan ez zuen suerte onik izan eta Euskal Herrira itzuli zen. Geroago, Argentinatik Donostiara 1890. urtean egin zuen bigarren bidaian erabaki sendo bat hartu zuen: 1891ko ekainaren 11n ezkondu egin zen Donostiako “Artzai Ona” elizan Maria Magdalena Alberdirekin. Hiru seme izan ondoren, bigarren aldiz Ameriketara joatea erabaki zuten eta Argentinan beste hiru jaio zitzaizkien.

1.2. Erbestea eta Herrimina

P.M. Otaño XIX. gizaldiko euskal emigrazioaren eredu garbia dugu eta herrimina haren bertsoen gai nagusienetakoa bat da. Hona hemen adibide gisa haren bertso batzuk:

Lenago anbat aintzat artzen ez
 induzen gauza guztiak,
 ainbesteraño edertzen ditu
 orain ezin ikusiak:
 Euskal Erriko mendi ta zelai,
 ibai, arkaitz ta sasiak.
 beinere ezin aztu litzake,
 aien tartian aziak.

Urruti zaude eta zaila da
 ni zugana iriztia
 onenbeste nai dizun batentzat
 zer bizimodu tristia!
 Alibio bat bakarra daukat:
 ametsetan sinistia;
 Zu ikusteko noiznai asko det
 nere begiak ixtia. (3)

Herrimin eta urrutimin hauek azaltzen ditu batez ere bere “Amerikako Panpetan” izenburudun bertsoetan. Arbolaren irudiaz baliatuz, gai telurikoetara darama irakurlea. Zuhaitza beti izan da mirengarri euskaldunen artean. Hor ditugu adibidez, pago “benedikatuak”, Gernikako arbola santua, etab. P.M. Otaño “Errekalde” baserriko intxaur arbolapean jaio zen, Zizurkilgo arbola artean bizi, eta orain baita ere, arbolapean nahi du hil.

- 1.- “... itzal aundiko intxaur arbol bat
 dago gure atariyan...
 arbol tartian bizitu nintzan
 gazte denbora guztiyan.
- 2.- “... Aritz tantaiaak, pago lerdanak
 nola ez izan goguan!”

Bainan Argentinako eremu zabal hartan, bere artzain lanetan ari zela, ez zuen aurkitzen Euskal Herriko naturaren edertasunik eta goibel agertzen zaigu gure bertsolaria.

- 3.- Ainbesteraño tristetutzen naiz
 eremu zabal oietan,
 arbolak, mendi eta errekek
 falta diran zelaietan...

Bere bakardade, tristura eta lur lehor hartako urritasunaren erdian, ombú bakarti bat aurkitzen du eta haren itzalpera doa atsedenen bila. Zuhaitz hostotsu eta eder honek, P.M. Otañoen bihotzean orotzopen kilikagarriak sortarazten dizkio: “Errekalde” baserriko intxaur arbolaren irudia, eta Euskal Herrira itzuli nahia.

- 4.- Nere lagunik maitatuena,
 ombú laztana, zu zera,

argatik nator zure kolkora,
ni malkuak isurtzera,
iduriturik naramazula
atariko intxaurpera...
Beti izango zaitut goguan,
bañan joan nai det ostera
Euskal-lurreko arbolape artan
nere ezurrak uztera. (4)

Egitura aldetik esan genezake hamarreko nagusia erabiltzen duela, bertso liriko eta dramatiko hauetan. Halaber, geihenetan bezala, puntu aberatsak darabiltza:

-baserriyan, atariyan, gaztañariyan, sagastiyan, guztiyan.
-nuan, goguan, onduan, orduan, ombúan.
-gogotik, ondotik, gozuagatik, frutik, zutik.
-zera, isurtzera, intxaurpera, ostera, uztera.

1890. urtean Argentinatik Euskal Herrira bigarren aldiz itzuli zenean, zortzi urte eman zituen Donostian. Ordukoak ditugu besteak beste “Limosnatxo bat” (1893), “Txepetxa” (1894) bertso bikain eta oso ezagunak. Nork ez ditu ezagutzen bertso eder hauek?:

Mutil koxkor bat itxu aurreko
zubela aldamenian,
gizon buru soil, bizar zuri bat
bi makuluren gañian,
kale eskiñan ikusi nuben
iñora ezin joanian;
ta bera nor zan jakin nayian
inguratu nintzarian,
limosnatxo bat eskatu zidan
Jaungoikoaren izenian. (5)

1898ko urtarrilaren 26an, Pasaiako portuan itsasontzia hartzerakoan ehundaka lagun bildu ziren P.M. Otañori azken agurra egitera; hauen artean Donostiako Orfeoiko abeslariak eta Gipuzkoako diputatuak nabarmentzen ziren. Ontziratu baino lehen bat-bateko bertso hauek kantatu omen zituen:

Ez nua borondatez,
bearrak narama,
nerekin daramazkit
iru ume ta ama;
iñork inguratu nai
badu neregana,
pozik egingo diyot
posible dedana. (6)

1.3. Euskara

P.M. Otañok kinka larrian ikusten zuen euskararen etorkizuna eta haren arazo nagusienetako bat, euskaldunen hizkuntzaren egoera negargarria zen. Beraz, Euskal Herria gaitzat hartuta kantatzen zuen bakoitzean, ez zuen bukatzen bertso-saiorik euskara goraiatu gabe. Horrez gainera, baseritik zetorkion euskara herrikoia zaintzen eta hobetzen saiatu zen bere bizitza guztian; urte batzuk geroago, Pizkunde garaian plazetako bertsogintzan “Basarri” bertsolariak erabiliko zuen hizkera herrikoia baina txukuna, garbia eta kultoa. Jarraian datozen bertso-lerroetan, hegazti harrapari baten izenaz baliatuz eta sinbologiaren bidez, euskararen orduko egoera arriskutsua honela deskribatu eta salatzen du.

“... Miru gaiztoak menderatutzen
duten bezela uxua,
etzazutela iltzera utzi
gure euskara gaixua. (7)

Eta salatuen zerrendan “gauza txit txatxuak” egiten dituzten “jakintsuak” aipatzen ditu, eta nola ez, D. Miguel de Unamuno (1864-1936), bilbotar filosofo ospetsua eta Salamankako Unibertsitateko Erretore Jauna agertzen zaigu hauen artean:

1.- “Guk nai diyogulako
euskerari fidel
ipintzen diguzu
bekozkua goibel?
Asko dakizularik
gaizki zaude, Migel,
ezin biurtu leike
amorrayik igel.

2.- Bilbao`tik irten da
Salamanka`raño!...
Noraño joan zerade
zu, Migel, noraño?
Gu etorriyagatik
beste munduraño
uste det alderago
gaudela zu baño. (8)

1.4. Abertzaletasuna

Beste bertso ederrik ere idatzi zuen bertsolari honek, adibidez: “Zazpiak bat”; poesia hunkigarri honetan abertzale sutsu bezala agertzen zaigu. Bigarren Karlstadako gerratea eta honen ondorioz gertatzen ziren Foruen hondarrak ere galdu ondoren, euskaldun askoren bihotzetan etsipena eta ezinegona sortu ziren. Irudi ulerterraz batzuen bidez (oihala, guraizea, zuhaitza, landarea, etab.) P.M. Otañok euskal-

dun guztien batasuna ozenki aldarrikatzen du. Bertso hauek Jose Mendiague hazpandar bertsolariari eskaini zizkion 1900. urteko martxoaren 29an.

1.- Zazpi aizparen gai dan oiala
 ebakirikan erditik,
 alde batera iru soñeko
 utzirikan lau bestetik;
 goraziakin berezi arren
 bakoitza bere aldetik,
 ezagutzen da jantzi dirala
 zazpiak oial batetik.

2.- Oialtzat artu zagun euskera,
 goraitzitat Bidasoa,
 ibai koxkor bat besterik ez da,
 utsa balitz itsasoa;
 elkarren urbil daude zazpiak
 muga deitzen da Pausoa,
 zergatik izan bear ez degu
 famili bakar osoa?

3.- Arbola baten zañetatikan
 sortzen diran landariak
 bezela gera Bidasoaren
 bi aldetako jendiak;
 berdiñak dira gure jatorri,
 oiturak eta legiak,
 Ama Euskerak magal berian
 azitako senidiak. (9)

1.5. Erljioa

Eta azkenik nola ez aipatu “Aita-Semeak” (1900) izenburua dararmaten lerroak. Bertso hauetan aita batek semeari, Ameriketako bidaia dela-eta ematen dizkion aholkuak agertzen zaizkigu. 1875. urtean Argentinarako lehen bidaia egin zuenean, P.M. Otañok aitarengandik entzun eta 25 urte geroago Pehuajó herrian idatzi eta Buenos Airesko *La Baskonia* aldizkarian argitaratu zituen; agian, artista honen erlijio-tasunaren ezaugarririk hoberenak dira.

1.- Lagundurikan denoi
 gugatik il zanak
 seme asi zaitugu,
 aita eta amak,
 beti zure gidari
 izandu geranak.
 Orain gurutze onen
 oñean esanak,

ondo goguan artu
biaituzu danak.

2.- Zu Ameriketara
joatia emendik,
Jaunak ala nai badu,
zer egingo det nik?
An ez dezu izango
aitik eta amik;
baña etzera galduko
noranaira joanik,
ez bazaizu aztutzen
gaur emen esanik.

3.- Gorde zazu buruan
eta biyotzean
aitak zer esan zizun
onuntz laguntzean,
bitarteko arturik
Jesus gurutzean:
Jaungoikua t' ait' amak
batek aztutzean,
ez leike ondo izan
denbora luzean.

4.- Iritxi da ordua
juan bear dezuna,
badakizu ait' amak
emen dauzkatzuna;
ez dezazula aztu
gaur neri entzuna,
itz baterako au da
eskatzen zaizuna:
izan zaitez non-naita
beti euskalduna. (10)

1.6. Artzai Mutilla (opera)

Opera honen musika, Felix Ortiz y San Pelayo azpeitiar musikariak konposatu zuen; letra, ordea, Pedro M^a Otañok. Antonio Zavalaren iritziz:

“Otañok bertsoan sailkatu gabe idatzi zuan opera ontako letra, aldi batzuetan beintzat. Puntuak binaka eta irunaka uztartuz, alegia... Bestetan, ordea, bertso edo aapaldietan sailkatzen du bere testua. Zenbait alditan, bertso-mota klasi-koak dira; beste zenbaitetan, berriz, bertso-mota berria da”. (11)

1900. urteko otsailaren 18an estreinatu zuten Buenos Airesko *Teatro Victoria* antzokian eta oihartzun zabala izan zuen hango egunkari eta aldizkarietan. Hona hemen haietako batzuk: *The Standard*, *El Diario Alemán*, *El País*, *El Correo Español*, *El Diario*, *La Tribuna*, *El Tiempo*, *La France*, etab. Azken egunkari honen arabera, *Artzai Mutilla* operaren arrakasta zabala eta xarmagarria izan zen:

“*Artzai-Mutilla*, l’opéra basque de M. Ortiz y San Pelayo, a eu le succès que nous avions prévu. L’auteur du libretto, M. Pedro M. Otaño, le compositeur, les interprètes ont été acclamés par la salle entière, qu’il avaient littéralement tenue sous le charme pendant la durée de cette magnifique représentation”. (12)

La Baskonia (nº 230, 20-II-1900) aldizkariak ere honela goraiatu zuen obra honen garrantzia:

“Extraordinario éxito en el Teatro Victoria”... Del libreto, con decir que lo ha hecho Otaño, no es necesario añadir más, pues ya se sabe que es en vascuence el más fácil, espontáneo (sic) y tierno de nuestros poetas populares...” (13)

Hurrengo zenbakian (*La Baskonia*, 2-III-1900) Francisco Grandmontagne idazlearen hitz hauek aurki ditzakegu, P.M. Otañoren bizitzari buruzko hainbat zehaztasun eta neologismoen orduko ezta-baidaren zantzuak irakurriz.

“El libretista es, como el músico, enciclopédico, pero mucho más raro en este sentido. Pello Mari como se le llama en Guipúzcoa, ha sido alambrador de la Pampa, hornero, tenedor de libros, herrador y poeta, poeta excelente, cuya delicadeza contrasta con la dureza de sus otros oficios. Es un caso único, pues no se trata de un bardo, sino de un verdadero escritor en vascuence. El libreto de *Artzai Mutilla* tiene versos de una factura notable, ricos en símiles...”

Pertenece Otaño a una familia de improvisadores y versolaris. Es un cultor entusiasta del vascuence, de un vascuence claro, esencialmente popular, exento de esas innovaciones introducidas por algunos vascófilos... Su poesía es fácil, fluída y tierna, sobre todo tierna, muy bucólica y pastoril.

La vida de Otaño es una odisea, no tan bohémica como la de Iparragirre, pero sí tan llena de accidentes y penurias. (Luis Jaizquibel, *Mar de Plata*, Febrero de 1900). (14)

Artzai Mutilla operaren libretoan P.M. Otañok behin eta berriz errepikatzen ditu bere bizitza guztian bihotzean sustraiturik eraman zituen sentipenak eta gaiak, hots, euskal Foruen galera, euskara eta Euskal Herria, anaien arteko pakea eta guztiekiko maitasuna, J.M. Iparragirreren aztarnei jarraituz: “Eman ta zabal zazu, munduan fruitua”. Hona hemen adierazgarri gisa haren bertso batzuk; konparaketa eta animalien irudirik ez da falta bertsolerro hauetan.

Euskal Foruen Galera
Lendabizi sarturik
Fueruak lurpera,

gañera galerazi
nai dute euskera.

Nola erlaundi tzarra sartzen dan
erladi txintxo batean
ta loikeria alkar garbiro
maite dutenen artean,
ero kukua txantxangorriak
beretzat daukan kabian
ala sartzen da Gobierno
gure sort-erri garbian,
begiramenik batere gabe
gure sentimentuari,
eskubidea ta arrazoia
kenduaz mendekoari. (15)

Betoz gure fueroak
legez ta pakean,
ez degu gerrarik nai
anaien artean;
bañan etsaia sartzen
bada lur maitean,
guazen laubururekin
gu laurak batean. (16)

Euskara

Gure izkuntza
maitean
beti mintzatu
gaitean,
mendi gañetan
ta zelaietan
bizi geran bitartean. (17)

Guztiekiko Anaitasuna
Ebrotik aruntz bizitzen diran
Iberiako lagunak,
gure anaiak dirade eta
pakea zor diegunak.
Gu bezelaxen oñazepean
arkitzen diran gendeak,
denok ekarri gaitu ontara
Gobernu lotsik gabeak. (18)

Artzai Mutilla operaren edertasuna eta garrantzia argi agertzen dira
Jose Mendiague-ren bertsolerro hauetan:

“Buenos Aires-en ikus dezagun euskaraz egin opera...
Holakorikan ez da agertu guretzat orai artian...
Ameriketan, zu izan zira, egin duzuna lehenik... (19)

P.M. Otaño euskara irakaslea ere izan zen 1904. urtean Buenos Airesko “Laurak Bat” elkartearen. Ordura arteko ogibide latzei muzin egin ondoren, euskararen irakaskuntzan dihardu katedra bat lortuz. Sarrera eguneko hitzaldiaren lerro batzuk oso adierazgarriak egiten zaizkigu haren pentsakeraren muina ondo uler dezagun:

“Ha habido y no faltan, desgraciadamente, cerca de Euskaria, muchos que constituyéndose en jueces de lo que no entienden, han tratado al euskera con tan olímpico desdén, calificándolo de oscuro, confuso e incomprensible bati-burrillo, cuando a él le deben tantísimas voces de su extenso vocabulario”. (20)

Gaur egun ere *Diccionario de la Real Academia Española* liburuan, euskararen definizioa, bigarren sarreran, honela agertzen da: “Vascuence, 2. m. fig. y fam. “lo que está tan confuso y oscuro que no se puede entender”. (21)

1.7. Azkena

P.M. Otaño gazterik hil zen 53 urterekin bizitzako amets handi bat lortu gabe: bere hezurak Euskal Herrian lurperatzea.

“...Beti izango zaitut goguan
Bañan joan nai det ostera
Euskal-lurreko arbolpe artan
nere ezurak uztera”. (22)

Santa Fe probintziako Rosario hirian hil zen 1910eko maiatzaren 5ean, etxeko eskailetan erorita eta Pehuajó herrian hilobiratua izan zen 1971. urtera arte. Baina gaur egun haren gorpua La Plata hiriko hilerrian datza.

Sona handiko bertsolaria izan zen bai Euskal Herrian eta bai Hegoameriketara. Hona hemen adibide gisa iritzi batzuk:

a) Emeterio Arrese, Tolosar poeta:

“... mendi-mendiko larranbillo usai, iturri naro ta gañantzeko beste eder guziak ere berekin zitun Pello Mari-ren bertso bakoitzak... Garai artako neur-titz-egille ta olerkarien buru Pello Mari zan...” (23)


b) Aitzol:

“... Otaño bertsolari utsa dala aitortzea, bildur zaigu... Goimallako olerkaria dala ere ezin ezan... “Aiton Gizagaizoa” eta “Amerikako Panpetan” irakurrita Otaño olerkaria zala aitortu bearrean izango zera”. (24)

c) José Mendiague:

“Felizitatzen zaitugu denek
bihotzetikan, Otaño
zure parerik ez da agertu

Ameriketan oraiño;
fama handiak dituzu bainan
obrak hanitz handiago,
zure izena ez da galduko
mendeak mende direno. (25)



H. Knörr eta G. Aulestia Aramaion (2006).

1890ean demokratizazioa hasi zen Uruguay-en eta populazioa azkar hedatu zen Europako inmigrazioari esker. XIX.mendearen erdian 90.000 biztanle baino ez zituen nazio honek eta 50 urte geroago, 1900.urtean kopuru hori milioi batera igo zen. Hazkuntza horretan euskaldunek zerikusi handia izan zuten, zeren milaka euskaldun joan ziren Uruguay eta Argentinara. Gertakizun honen ezaugarri bat aurki dezakegu 1853an Antoine d'Abbadie-k antolatu zuen lehen olerki sariketan; lehiaketa honen gaia hauxe izan zen: euskaldunek Montevideora emigratzeko zuten garra eta joera. Emigrazio honen beste ezaugarri bat ere badugu politika arloan: Juan Idiarte Borda euskalduna 1894ko hauteskundeetan lehendakari aukeratu zuten 32. itzulian. Zorigaitzez, hiru urte geroago Montevideoko Katedraletik irtetean tiroz hil zuten. Zuri eta gorrien ("Blancos y Colorados") arteko guda odoltsuei azkena emateko, 1903an Jose Batlle lehendakari hautatu zuten 1929an hil zen arte, eta gizon horri esker aurrerapen ugari, eta Hego Amerikako konstituziorik aurrerakoi eta liberalena lortu zuten. Ingurumari honetan kokatu behar dugu geure bertsolariaren bizitzako eperik luze eta garrantzitsuenak.

2. JOSÉ MENDIAGUE (1845-1937)

2.1.- Bizitza

José Mendiague 1845ean Alduden jaio zen. Hiru urte bete zituenean Aldudetik Hazparnera bizitzera joan zen bere familiarekin eta hemen haurtzaro gorria jasan zuen: pobrezia, gosetea, lau anai-arrebaren heriotza, izurrite ikaragarria, etab. Baina berak dioen bezala: “Kantuz igortzen ditut penak”. Gratien Adema (1828-1907) euskal idazle ospetsu eta herriko apaizari esker kristau fedea, euskal zaletasuna eta bertsogintzarako grina haren bihotzean sustraitu ziren, eta sekula ez zitzaion falta itxaropenik eta umorerik.

“Ez dugu behar galdu esperantza,
jin daite gure aldia...” (26)

1.- Gazte denbora pasatu izan dut,
bertze hainitzek bezala,
ilusioenez dena betia,
ustez bertzerik ez zela...

2.- Denbora batez aise eiten nuen
kantu ta dantza plazetan...

3.- Soinua non zen adituz geroz,
loriatua, dauzika,
Harat joaiteko beti prest nintzen
laneko tresnak utzi-ta”... (27)

José Mendiague 1863an -18 urte zituela- Montevideora heldu zen. 1881ean San Jose hiriko Katedralean ezkondu zen Margarita Gandollarekin eta lau seme-alaba izan zituzten; horietatik bi gazterik hil ziren. Gizon trebea eta ausarta izan omen zen, bai arazo sozial eta bai ekonomikoetan “Euskaldunak bat” (1887) elkarte berriaren sorreran parte hartuz idazkariorde gisa. Horrez gain, 1894an 25 langile zituen tabako lantegi berri bat ireki zuen. 1937an zendu zen eta haren hezurak Montevideoko hilerrian daude.

2.2. Lanak

Euskal Kulturaren esparruan eta batez ere bertsolaritzan ospetsua izan zen. Haren bertsorik hoberenak Montevideoko *Euskal-Erria* aldizkarian eta Piarres Xarritonek prestatutako liburuan aurki ditzakegu: *Jose Mendiague (1845-1937). Haren bizia eta haren Kantuak*.

Euskal bertsolarien miresle

J. Mendiaguerean bertsogintzan Argentinara eta Montevideora joandako bi gipuzkoar bertsolariren eragina oso nabaria da musikan, baita gaien arloan ere: Jose M^a Iparragirre eta Pedro Mari Otaño. Hazpandar bertsolariak eta Urretxuko trobadoreak 14 urte eman zituzten Montevideon (1863tik 1877ra), eta J. Mendiague-k bera baino 25

urte zaharragoa zen gipuzkoar bardoarengandik asko ikasi zuen; adibidez, doinuen esparruan sarritan erabiltzen ditu “Ume eder bat” eta “Gernikako Arbola” melodiak. Gaiei buruz ere gauza bera esan genezake; behin eta berriz darabiltza euskaldunen batasuna, euskal foruen galera, euskara, Euskal Herria, euskal emigrazioa, etab. Beraz, ez da harritzekoa J. Mendiaguek bere burua Urretxuko semearen miresle gisa agertzea. Iparraldeko eta Hegoaldeko bertsolari ezagun eta ez hain ezagunen izenak aipatzerakoan, J.M. Iparragirrerri ahapaldi oso bat eskaintzen dio. Beste bertsolari batzuen izenak, ordea, bakarrik agertzen zaizkigu: Katxo eta Etxahun, Amezketa eta Ttipi, Fermin eta Madoz, Otxalde eta Elizanburu, Bordaxuri eta Xenpelar.

“Zer gizon jakintsuna zen Iparragirre!
Hura bezalakorik ez da izan batere;
Hark egin’tuten obrak handiak dirade;
Denak admiratuak heier beha gaude.
Beti kantatu izan du Euskaldunen alde,
Gure kontrarioen beldurrikan gabe. (28)

Euskaldunen batasuna

Gipuzkoar bertsolariaren ospearen oihartzuna, Argentinako panpetatik, Montevideo aldera aspalditik heldua zen eta hazpandar bertsolariaren eta P.M. Otañoren arteko harremanak oso onak izan ziren beti. Beraz, nola ez berriz aipatu 1900.urtean P.M. Otañok J. Mendiague-ri eskainitako bertso hunkigarriak euskaldunen batasuna suspertu nahian.

Zazpi aizpuren gai dan oiala
ebakirikan erditik... (29)

Hazpandar bertsolariak ere ozenki aldarrikatu zuen euskaldunen batasuna. 1912an *Euskal Erria* aldizkarian, “Euskaldun guziak bat” izenburupean irakur ditzakegun ahapaldiek antzeko sentimenduak sortarazten dizkigute. Irudi esanguratsuz baliatuz, historian zehar euskaldunok daramagun burruka luze honetan, askatasun egunsentia-
ren itxaropenik ez dugu galdu behar, oztopo guztiak gaindituz.

1.- Lapurdi eta Baxenabarre, Xuberoa eta Nabarra,
Gipuzkoa eta Bizkaia, zazpigarrena Araba,
guziek elgar atxik dezagun, neholere ahal bada,
aitonen kostumak segi ditzagun, galdu ez dezagun Ama.

2.- Zazpiek elgar atxik dezagun, denek eskuak emanik,
Hiru Frantzian, lau Espainian, aparte izanagatik,
Lehenagoko arengurak utz, elgar maita bihotzetik,
Euskal Herriak anaiak dira, mundurat sortuz geroztik

3.- Mendi artean dagon lehoina, handik kentzea neke da...

4.- Bakoitza bere lurren nagusi jartzen ari da jendia,
ez dugu behar galdu esperantza, jin daite gure aldia...

5.- Bainan ez bada ur bilakatzen Euskaldunaren odola,
Elgarri fidel egon gaitezen, jinen da gure denbora. (30)

Euskara

XX. mendearen hasieran P.M. Otañok Ama euskarari eskainitako bertso zoragarrien durundia entzuten zen oraindik Uruguay-ko euskaldunen artean:

Ama Euskerak magal berian
azitako senidiak...
ama maitia indartu dedin...
bizi bedi “Zazpiak bat”. (31)

Hamabi urte geroago, 1912an José Mendiaguek 21 ahapaldiko bertso zirraragarriak idatzi zituen “Euskaldun guziak bat” izenburupean. Ama ahul eta gaixo baten irudiaz baliatuz, euskararen egoera latza eta etorkizun zaila aurkezten dizkigu. Euskaldunen lehen betebeharra, lehenbailehen sendagaia aurkitzea da euskera hil ez dadin. Euskeraren desagertzeak euskaldunen nortasunaren bukaera ekarriko luke, beraz euren azken helburua: euskaldun jaio, bizi eta hiltzea izan behar du.

Nahiz Frantzian ala Espainian, joan den denbora handian,
Gure mintzaia nahiz galerazi ari dirade lanian;
Ama utzi-eta, Amaizuna har, gerta liteke orduian;
Geldi gaitezen gure Amarekin, hoberik ez da munduian.

Horiek hola emanagatik gure kontrako legiak,
Ez dira behar utzi burutik, ttipitikan ikasiak;
Gure lenguaiaz mintza gaitezen euskaldun kasta guziak,
gutaz irrik ein ez dezaten Frantziak eta Espainiak.

Euskal Herriak gaizki gabilta, joan den aspaldi handian,
Batzu Kastillaz, bertziak Frantsesez ari gira solasian.
Denen ikastia gizonak on du, aise ibiltzeko munduian,
Bainan euskara atxik dezagun ahantzi gabe buruian.

Ama euskara, bihotza triste, nigarrez urturik dago,
Ikusiz semek ez diotela kasurik eiten gehiago;
Eri da eta lagun dezagun; senda ditake oraino;
Orai sendatuz, bizi litake, mendeak mende direno.

Nigarrez atzo, nigarrez egun, nigar egiten du beti
Bere semeak galdu tuela eta nehun ezin kausi;
Hori ez daite mundu hunetan gure aldian baizik bizi;

Zertan gabiltza, nere anaiak, gure Amaren ihesi?

Abia gaiten, Ama gaixoari erremedio eitera!

Egin ahala egun dezagun, ez dezagun utz hiltzera!

Gure gantikan bizi da era badugu horren beharra,

Hiltzen bazaiku Ama euskara, guziak galduak gira! (32)

2.3. Azkena

1937ko irailaren 12an zendu zen 92 urterekin bere ahaideen artean eta haren hezurrak Montevideoko “Buceo”-ko hilerrian daude.

José Mendiague-ren bertsogintza ez da heltzen Zizurkilgo bardoa-ren mailara, hala ere garai hartako Ameriketako bertsolarien artean nabarmenki gailendu zen, haren ospearen oihartzuna Euskal Herrira ere iritsi baitzen. “Aitzol”-en iritziz oso berezia eta indar handiko bertsolaria izan zen:

“... el poeta más destacado de la emigración me parece ser el ezpeldarra (sic) Jose de Mendiague, casi totalmente desconocido aquí como popular entre los vascos de la Argentina de la anterior generación. Poeta de gran fuerza descriptiva y rara originalidad”. (33)

Urretxuko trobadora Erromantizismo garaian Euskal Herriak eman zuen bertsolaririk bereziena izan zen. Bat-bateko bertsuetan ez zen izan Xenpelar handia bezain trebea; teknika arloan ez da maiz zehatza eta ez du erakusten puntu aberatsetarako joerarik. Halere, inork baino hobeto ezagutarazi zituen Ama Lurraren zorigaitzaren minberakortasuna, Foru eta Lege Zaharren amodioa, Gernikako Arbolaren sinbologia indartsua, Euskal Herriaren naziotasuna, Nafarroaren euskalduntasuna eta euskal doinu berrien altxorra.

3.1. Bizitzako zertzelada batzuk

Jose Mari Iparragirre 1820an Urretxun jaio zen eta hamaika urterekin Gasteiza eraman zuten latina ikastera eta hurrengo urtean Madrilera josulagunen eskolara. Hamairu urte zituela bere amari: “Ama, eskolara noa” esan, eta beste barik ihes egin eta Madriletik Gipuzkoara mendiz itzuli zen. Berak dioen bezala:

“A la muerte de Fernando VII tomé las de Villadiego, y como Dios quiso, llegué a las montañas eúscaras, y sin más opinión que el amor a mis paisanos senté plaza de voluntario”... (34)

Hasieran soldadu agertzen zaigu eta 1834an Karlos V. Erregearen zerbitzuan ohorezko alabardari gisa. Bi aldiz zauritu zuten mendietan tiroka zebilela. 1839ko abuztuaren 31an Esparterok eta Marotok besarkada baten bitartez izenpetu zuten Bergarako Itun famatua zela-

3. JOSE MARIA IPARRAGIRRE (1820-1881)

eta, J.M. Iparragirrek “estranjeri aldera” joan beharra izan zuen besapean “kitarra zartxo bat” zeramala.

Hamabi urtez, kantu-kantari Frantzian, Italian, Suitzan, Alemanian eta Ingalaterran ibili ondoren, 1851an Kantabria, Bilbo eta Madrilera itzuli zen. Espainiako hiriburuan “Gernikako Arbola” bakezko eresi hungigarria konposatu zuen eta horren ordainez auzitegia, kartzela eta atzerriratzea jasan zituen.

“Tolosan bear dala
gauza erabaki
Giltzapean sartu naute
poliki-poliki...
Kartzelatik atera
fiskalen etxera
abisatu zidaten
joateko bereala;
ez etortzeko geiago
probintzi onetara;
ordu an artu nuen
Santander aldera”. (35)

1858ko abuztuaren 29an, 19 urteko nezkalaguna, Anjela Kerexeta, eta biak Baionako kaian “Angelita” izeneko itsasontziratuta eta urriaren 19an Buenos Aires-en lehorreratu ziren. Hiri honetako San Ignacio parrokiaren 1858ko urriaren 29an ezkondu ziren.

J.M. Iparragirreraren lehen ogibidea artzaintza izan zen baina ez zen baserritarra, kalekumea baizik, gurasoak Urretxuko goxotegi xume baten jabeak baitziren. Beraz, ez zuen artzaintzarako prestakuntzarik ez gogorik. Anjela emaztearen iritziz, zeharo alferra eta axolagabea zen. Grandmontagne idezlearekin izandako elkarrizketan hauxe dio:

“- ¿Y qué tal pastor era Iparraguirre?”

- ¡Ay ene! Muy malo, señor: se le perdían las ovejas, se las dejaba robar ... yo me desesperaba ... ‘Pero no ves Joshe Mari que faltan quince?’. ‘Si no vuelven es porque estarán mejor en otra parte. Ellas también aman la libertad y yo quiero que hasta las ovejas tengan Fueros’ ¿Cómo íbamos a prosperar con un hombre así? ¡Ay Jesús, cuánto lloré! Pero no me hacía caso. Entraba en el rancho, tomaba la guitarra y me decía: ‘Ven Angelita, deja las ovejas y vamos a cantar el “Gernikako”. Nos poníamos a cantar y así pasábamos la vida, cantando zortzicos y contando las ovejas.

Por la mañana temprano él salía a rodearlas, mientras yo me quedaba haciendo el almuerzo; pero ni las rodeaba, ni caso hacía de ellas: se tumbaba en el campo y se pasaba las horas muertas haciendo versos entre la hierba. Y por las noches lo mismo. Después de estar los dos un gran rato mira que te mira al cielo desde la puerta del rancho, yo me iba a la cama, y él se quedaba haciendo versos.... Yo me desesperaba y el me decía: ‘Calla, Angelita, ya ganaremos otra vez; y si no, lo mismo da tener que no tener. Los pájaros nada tienen tampoco y viven alegres volando entre el sol’”. (36)

Artzain arlote, gizon alproja haren bihotza eta lana ez ziren ondo uztartzen, beraz 1861eko apirilean Montevideora joan ziren beste lan baten bila. Ahaide eta lagun batzuei esker “El Árbol de Gernika” kafe-tegia ireki zuten, baina negozioa oso gaizki joan zitzairen eta porrotaren ondorioz berriro ere artzaintzara jo beharra izan zuten. Hona hemen Anjelaren aitortza:

“Yo con el niño en brazos, y Joshe Mari con la guitarra, salimos de Nueva Palmira para Montevideo, cantando el “Gernikako” por el camino... Alquilamos una casa para establecer el negocio, y lo primero que hizo Joshe Mari fue mandar pintar en las paredes, adentro y fuera, el Roble de Guernica, por todas partes no se veía más que el Árbol, y en la fachada puso un letrero que decía: Café del Gernikako Arbola.

- Iría mucha gente al café - pregunté a la viuda.
- Muchísima señor; siempre estaba llena la casa.
- ¿Hacían ustedes un gran negocio?
- ¡Calle usted, por Dios! ... allí no pagaba más que el que quería pagar, y querían muy pocos. Y los pocos que querían, tampoco pagaban, porque Joshe Mari no les quería cobrar...
- ¿Y qué hicieron después?
- Nos volvimos al campo; él con la guitarra en la mano y yo con dos nenes en los brazos...
- Ahora sí que les iría bien...
- ¡Qué esperanza, señor! Tan mal como antes. Joshe Mari seguía haciendo versos, tumbado entre el pasto. Además empezó a recibir “periódicos” de las provincias Vascongadas, y siempre estaba leyendo las cosas que decían de los Fueros. Las ovejas se le escapaban...” (37)

3.2. Lana

Txirritaren antzera J.M. Iparragirre ere lanerako baino kantarako prestuagoa zen: “kantari pasatzen det, nik beti eguna”. Diruari muzin egin, lanari bizkarra eman eta kantuz bizitzeko txoria zen urretxuarra. Hala ere, haren liburuetan bertso askorik ez dugu aurkitzen eta gaiak ere ez dira ugariak baina bai sarkorrak eta esaldi dotorez ederki hor-nituak:

- eman da zabal zazu munduan frutua
- ara nun diran mendi maiteak
- negar egingo luke bere amak baleki
- ama zertarako da negar egitea
- bañan biotzak dio zoaz Euskal Errira
- Agur, Euskal Erria baiña ez betiko.
- Ume eder bat ikusi nuen Donostiako kalean
- Agur nere biotzeko amatxo maitea
- Zuregatikan emango nuke pozik, bai, nere bizia.
- Ezkongaietan zerbait banintzan, ezkondu eta ezer ez.
- Tolosan bear dala gauza au erabaki.
- Giltzapean sartu naute poliki-poliki.

3.3.- Itzulera

Bigarren Karlistadako gudaren porrotak eta ondorioz, 1876ko Foruen galerak akituta, gogaituta eta nazkatuta utzi zuten J.M. Iparragirre. 1877an Gasteizko lagunentzat Ricardo Becerro de Bengoa-ri bidaltzen dizkion berriak ez dira batere pozgarriak:

“Los momentos son supremos para mi afligido corazón... que suspira por la bendita tierra euskara”. (38)

Zortzi seme-alaba eta emaztea utzi eta Euskal Herrira itzultzea erabakitzen du baina ez du dirurik eta lagunengana joko du diru bila. Erantzuna ezin hobea izan zen eta euskaldunek, espaniarrek, ingelesak, frantsesek, italiarrek, alemaniarrek eta portugaldarrek diruz lagundu zioten.

“Gure anayac dira Españolac,
gure anayac Francesac,
adizkideak Italianoac,
Alemanak eta Ingelesac,
orobat dira Lusitanoac
Beti ongille guretzat;
Mundu guzian zabaltzen dira
Euscaldunentzat biotzac”. (39)

Ia 19 urte Euskal Herritik kanpo Hego Amerikan ibili ostean, aintzinako 13 urteko erret alabardariaren eta oraingo 57 urteko gizon helduaren bihotzeko taupadak eta sentipenak ez dira berdinak. Askatasunak, Foruak, euskarak, etab. sustraiturik irauten dute haren barruan; ez, ordea, karlismoaren eta monarkiaren garai bateko zaletasunak. Beraz, Argentinako hiriburuko Colon Antzokian egiten dioten azken agurreko omenaldian hitz gogorrek erabiliko ditu Karlos VII. aurka:

“Zuaz, D. Carlos zazpigarrena,
Urrun bai gure lurretik;
Ez dezu utzi guretzat pena
Eta tristura bestetic;
Lutoz negarrez ama gaisoac
;Ay! ezin consolaturik;
Ez degu nai ez gueyago icusi
Zori gaiztoco guerraric”. (40)

Bihotzeko erresuminez, herriminez eta urrutiminez urte luzeak Euskal Herritik kanpo eman zituen bardoa 1877ko urriaren 20an heldu zen Bordeleko portura eta Hendaian abestu zituen “Ara, nun diran mendi maiteak” hitzekin hasten diren bertso zoragarriak.

“O! Euskal-erri, eder maitea,
 ara emen zure semea,
 bere lurrari mun egitera
 beste gabe etorria.
 Zuregatikan emango nuke
 pozik, bai, nere bizia;
 beti zuretzat, il arteraño,
 gorputz eta arima guztia”. (41)

Lau urte geroago, 1881eko apirilaren 6an zendu zen Urretxu ondo-ko Itxaso herrixkan, “Gernikako Arbola” bertsoz lehen aldiz kantatu zuen bardoa.

- 1.- A. Zavala. *Pedro M. Otaño eta bere ingurua (I)*. Oiartzun, Sendoa, 1993: 339-340.
- 2.- *Eguna*. 1987-I-22.
- 3.- *Otaño'tar Pedro M'ren Olerki onenak*. Donostia, Alkar, 1930: 89.
- 4.- A. Zavala. *Ibid.* (II): 61-63.
- 5.- *Ibid.* (I): 381.
- 6.- *Ibid.*: 245.
- 7.- *Ibid.*: 449.
- 8.- *Ibid.* (II): 108-109.
- 9.- *Ibid.*: 56-57.
- 10.- *Ibid.*: 48-49.
- 11.- *Ibid.*: 201.
- 12.- *Ibid.*: 263.
- 13.- *Ibid.*: 252.
- 14.- *Ibid.*: 256-257.
- 15.- *Ibid.*: 216-217.
- 16.- *Ibid.*: 229.
- 17.- *Ibid.*: 225.
- 18.- *Ibid.*: 239.
- 19.- P. Xarriton *Jose Mendiague (1845-1937). Haren bizia eta haren lana*. Donostia, Etor: 83-84.
- 20.- A. Zavala (I): 271.
- 21.- *Diccionario de la Real Academia Española*, Madrid, 1992: 2063.
- 22.- A. Zavala (II): 63.
- 23.- *Euzko-Gogoa*, 1952, n° 9-10: 15.
- 24.- *Otaño'tar Pedro M'ren Olerki Onenak*: 13-14.

OHARRAK

- 25.- A. Zavala (II): 58.
- 26.- P. Xarriton. *Ibid.*: 9.
- 27.- *Ibid.*: 152-153.
- 28.- *Ibid.*: 38.
- 29.- A. Zavala (II): 56.
30. P. Xarriton. *Ibid.*: 31-36.
- 31.- A. Zavala (II): 56-57.
- 32.- P. Xarriton. *Ibid.*: 31-33.
- 33.- *Euzkadi* 1934-XII-11.
- 34.- Varios. *Iparragirre*, Bilbao, Euskaltzaindia, 1987: 313.
- 35.- Luis de Castresana. *Vida y Obra de Iparragirre*. Bilbao. La Gran Enciclopedia Vasca. 1971: 236.
- 36.- Varios. *Iparragirre*: 196-197.
- 37.- *Ibid.*: 198-199.
- 38.- *Ibid.*: 226.
- 39.- *Ibid.*: 225.
- 40.- *Ibid.*: 236.
- 41 Luis de Castresana. *Vida y Obra de Iparragirre*: 258.